

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Siesta



ARITZ GALARRAGA

Marie Darrieussecqek dio, insomnioaren kontrako ekinean, probatu dituen gauzen artean –terapia, barbituriko, alkohol– batek funtzionatu izan diola –partzialki bada ere, ez baitu lorik eza erabat gainditu–: siesta. Siesta, bai, kuluxka, lo kolpea. Kontraesana dirudi, lorik eza loarekin konpontzea, baina badago egunean beti orduren bat, zeinean munduak ez duen ezer espero zutaz, zeinean zuk zeuk ere ez duzun ezer espero munduaz, eta zeinean ez dagoen gainera gauean dagoen lo egiteko presiorik. 18:00ak aldera lortzen zuen siesta bat egitea Darrieussecqek, eta horrek salbatu izan du ez gutxitan gaueko insomniotik.

Siesta, garai batean nagikeriarekin, alferkeriarekin lotzen zen praktika, gaur egunean moloi bilakatu dutena, entrenatzaile pertsonal, modako aldizkari, osasun saihoek gomendatzeraino, beti ere lan eta lan arteko pausa gisa, eta pixka bat deskantsatu ondoren berriz ere erabat produktibo izateko –eta hartara tentsioa sortzeko lo egiteko zailtasunaren eta deskantsatuta eta produktibo izateko ondo lo egin behararren artean–. Miguel Ángel Hernándezek, ordea, dohain baten gisara, bertute baten gisara ulertzen du, *El don de la siesta* izeneko liburuan. Siesta litzateke elipsi bat, eten ez-emankor bat, denbora propio, subiranoaren bilaketa bat. Geure buruari konpainia egiteko denborarena. Plazer txiki bat, zorionaren antzeko gauza batera gerturatuko gintuzkeena. Besterik ez bada, Hannah Arendtek zioenagatik: “pentsatzeko, beharrezkoa baita mundutik apartatzea; eta itzaletan barneratzea”. Dohain bat, beraz, opari bat, aterpe bat, etenaldi bat, zorion une labur bat ekaitzaren erdian. Itzuli beharko ginateke naturak lo egiteko programatu gaituen modura. Erromatarrek *sexta* deitzen zuten horretara, berdin dio eguerdian, eguerdi-ondoan, gosalduta eta gero, edo afalaurrean. Ezer txarrik ezin zaigulako gertatu siesta egiten dugun bitartean. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Pandoraren paperak

Munduko buruzagi eta handiek paradisu fiskaletan ezkutatu dituzten ondasunen filtrazio berria egin du Kazetarien Nazioarteko Partzuergoak. 35 estatuburu eta estatuburu ohi, 330 funtzionario, enpresariak, artistak eta kirolariak daude zerrendan.

ITP

Rolls Roycek 1.700 milioi eurotan saldu dio Zamudioko ITP Aero enpresa AEBetako Bain Capital funtsari, zeinak bazkide dituen Espainiako JB Capital Market funtsa –Botin familiarrena– eta Andoaingo SAPA armagintza enpresa –Aperribai familiarrena–.

COVID-19

Neurri murriztaileak bertan behera utzi dituzte Nafarroan. Tabernetako barran kontsumitu daiteke, dantzalekuetan dantzatu eta kontzertuetan zutik egon. Lehen Hezkuntzan ez da talde osoa konfinatuko ikasle batek positibo ematen duenean.